

EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTATISTIKA 2010

Euskal AEko I+Gko gastua BPGren %2,08 izan zen 2010ean

Gastua 1.360,3 milioi eurokoa izan da eta %6,2 hazi da 2009ren aldean

Ikerketa Zientifikoa eta Garapen Teknologikoa (I+G) Euskal AEn: 2010. urtean guztira 1.360,3 milioi euro erabili ziren I+Gko jardueretan, aurreko urtean baino %6,2 gehiago, EUSTATEk landutako datuen arabera.

Euskal AEko I+Gko gastua BPGrekiko: %2,08ra igo zen, aurreko urtean baino bederatzizehun gehiago, aurreko urteetan izandako gastuaren hazkunde positiboari eutsiz.

1 Taula: gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2005-2010

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
I+G GASTUAK						
Guztira (Milioi euro)	823,5	907,7	1.090,3	1.263,9	1.280,9	1.360,3
Urteko gehikuntza (%)	7,1	10,2	20,1	15,9	1,3	6,2
BPGaren aldean (%)	1,44	1,47	1,64	1,86	1,99	2,08
PERTSONALA (DOB) *						
Guztira	12.506	13.065	14.435	15.373	16.690	17.532
Urteko gehikuntza (%)	4,9	4,5	10,5	6,5	8,6	5,0
Biztanleria landunaren gainean (‰)	13,0	13,2	14,2	15,1	17,0	18,0
Ikertzaileak (DOB) *						
Guztira	7.820	8.145	9.220	9.640	10.386	11.071
Urteko gehikuntza (%)	5,5	4,2	13,2	4,6	7,7	6,6
Biztanleria landunaren gainean (‰)	8,1	8,3	9,1	9,5	10,6	11,4

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Eustat. Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistika

Dedikazio osoan aritu ziren langileak 17.532 izan ziren, langile landunen %1,8, 2009an baino %5,0 gehiago. Horietatik 11.071 dedikazio osoko ikertzaileak dira, aurreko urtean baino %6,6 gehiago hauek ere.

I+Gko langileen %33,4 emakumezkoak dira

I+Gko langileen %33,4, 5.863 langile, emakumezkoak dira. I+Gko jardueretan emakumeek duten parte hartzearen ehunekorik handienak Administrazio Publikoan eta Goi-mailako Irakaskuntzan gertatzen dira, %51,9 eta %47,4 baitira, hurrenez hurren. Enpresetan berriz, %28,5 dira emakumeak.

Euskal AEn egindako I+Gko gastuaren %77,1 enpresa-sektorean egikaritu zen

Egikaritze-sektoreei dagokienez, gasturik handiena enpresek egin zuten, I+Gko gastuaren %77,1 (1.048,5 milioi euro); %17,2 goi-mailako Irakaskuntzak egikaritu zuen (234,5 milioi), eta gainerako %5,7a administrazioaren mendeko zenbait organismo publikok (77,2 milioi).

Beraz, Euskal AEko enpresa-sektorea da, erkaketaz, ikerketa-ahaleginik handienaren egile, aurreko urteko gastuaren aldean 8 hamarren gehiagorekin gainera. Administrazio Publikoaren sektoreak bere pisua mantendu du, eta Goi-mailako Irakaskuntzarena 8 hamarren jaitsi da.

2 Taula: I+Gko gastuak egikaritze sektoreen arabera (%)

	Euskal AE			Espainia	Europako Batasuna 27
	2008	2009	2010	2009	2008
Enpresak eta IAGEP	79,5	76,3	77,1	52,1	64,9
Herri administrazioa	4,8	5,7	5,7	20,1	12,7
Goi-mailako irakaskuntza	15,7	18,0	17,2	27,8	22,4

Iturria: Eustat. Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistika


2010ean 27-EBko eta Espainiako datu eskuragarriak ez badago ere, aurreko urteetan nabarmena zen Euskal AEko gastu-egiturak Espainiako batezbestekoarekin zuen aldea: Espainian, 2009. urtean, enpresek I+Gko gastuaren %52,1 egikaritu zuten, Goi-mailako Irakaskuntzak %27,8 eta Administrazio Publikoak %20,1.

Jarduera sektoreka, industriak 2010eko I+Gko gastuaren %43,7 kontzentratu zuen, eta zerbitzuek %54,2. Eraikuntzak eta lehen sektoreak %2,1 egikaritu zuten. Industria-enpresen artean, ondoko jarduera adarrek egikaritu zuten I+Gko barne gasturik handiena: Garraio materiala (%10,7), Beste makineria (%6,6) eta Metalezko artikulak (%4,3). Zerbitzuetan, I+G Jarduerak (%34,3) eta Bestelako jarduerak (%8,3) dira baliabiderik gehien bideratzen dituztenak enpresen I+Gko barne gastura.

Finantzaketaren ikuspegitik, 2009ko antzeko portzentajeak mantentzen dira. Finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 733,9 milioi euro bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %53,9; finantzaketa publikoak 542,3 milioi (%39,9) eta goi-mailako irakaskuntzak 30,0 milioi (%2,2). 49,8 milioi bideratu zituzten atzerriko funtsek (%3,7) eta 4,3 milioi irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundek (%0,3).

Euskal AEko **Teknologia Zentroen** pisua dela eta, egiten duten gastua 139,7 milioi eurokoa da (guztizkoaren %10,3); dedikazio osoko 1.751 langile ari dira teknologia zentroetan, guztizkoaren %10.

1 Grafikoa: I+Gko gastuaren bilakaera, BPGrekiko. (%)



Iturria: Eustat. Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistika, EIN eta Eurostat

Azkenik, Espainiari eta 27-EBri dagokienez, BPGrekiko I+Gko gastuaren bilakaerari buruzko datu eskuragarriak ez dago 2010erako. Hala ere, eta aurreko urteak kontuan hartuta, ikusten da Espainiako batezbestekoarekin erkatuta, Euskal AEko BPGrekiko I+Gko gastu-portzentajeak alde handia zeukala, eta 27-EBren zifretara heltzen zela 2009an.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: José Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueren estatistikari buruzko datu bankua](#)